

1976  2025

PRINTZPIOEN ADIERAZPENA

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

1976



EUZKO LANGILLEEN
ALKARTASUNAREN
PRINTZPIO
ADIERAZPENA

Euzko Langilleen Alkartasuna Euzkadiko langilleen Euskal Sindikal Konfederakuntza da. Horregatik, bere helburua Euzkadiko langile guztiak, profesio eta profesioarteko elkarteetan biltzea da, beren eskubide, interesak eta nahiak aldeztu eta lortarazteko.

Etengabeko aldaketetan diharduen eta tenik ekonomi desarroilo maila batetara iritsia den gizarte honetan, E.L.A.-k adierazten du Kapitalist sistema langilegoaren eta herrien askatasun eta aurrerapenaren kontra dagoela. Euzkadi eta Euzkadiko langileak, egituraz inperialista eta nazioz gaidikoa den kapitalismo baten menpean aurkitzen dira, zeinek, botere eta erabaki zentroe dagokienez, konzentratuik dagoen produkzio, kontsumo eta kultur sistema bat inposatzen baitu. Berez ezeri jaramonik egin gabe bapateko irabazi pribatuari izan ezik, nahi eta ez morrontza eta zapalkuntza sortarazten du, langileen eta herrien eskubide, nahi eta interesak ukaerazten dituzten estatal formak ezariaz. Ondorioz Euskadiri bere nortasuna ukatzen zaio eta bere langile klasea morrontzapean aurkitzen da.

Euzko Langilleen Alkartasuna Euskal Herriaren zapalkuntzaz eta Euzkadiko langileen morrontzaz jabeturik, Euzkadi osoaren etorkizun librearen eragile nagusienak langileak direla, beharrezkoa ikusten du langile hauk elkartu, eginkizun honen arduraz jabetu eta, Euzkadiko langilegogandik eta Euzkadirentzat pentsatu eta burututako politika bat lantzea.

E.L.A. Euskal sindikal Konfederakuntza denez, euzkadiko langileen erreibindikazio guztien defendapena berea egiten du. Horien alde borrokatzeko tresna sindikatoa dela sinisturik, bere sindikalgintza, lan erreibindikazioetan eta gizarte bidezko bat lortzeko borrokan oinarritzen du. Kapitalist tresnak inola onartzen ez dituelarik, eta euskal langilegoaren talde kontzientziaren adierazpen bezala, bere buruaren jabe diren gizon eta Herri librearen gizartee baten alde jokatu du: hots, produkzio, kontsumo eta kultur tresnaklangileen esku eta serbitzuan egonen diren sozialismo batetan burutua izango den gizartea.

Adierazpen honetako printzipio eta helburuen desarroiloak, enpresa eta politik taldeetatik, Estatutik edo sindikatuarekin zer ikusirik ez duen edozein eraginetatik erabateko askatasuna exigitzen du. Sindikal eta politik kargoak batu-ezinak dira, askatasun honen garrantia lortzek ezinbestekoa baita. E.L.A.k askatasun osoz zehaztuko ditu bere xedeak, programak eta ekintzak, baita ere bere borroka edo negoziaketa bideak, eta beste erakundeekin ukan ditzakeen harremanak erabaki egiten ditu.

Euzko Langilleen Alkartasuna bere izakeraren zabala eta demokrazi zentzua adieraziz, Euzkadiko langile guztiei zabalik dago, inoren jatorria, sineskera, pentsaera edo politik aukera haintzat hartu gabe, baldin printzipio eta araudi hauk ontzat ematen baditu. Halaber garrantizatzen du ardura guzitetara iristeko guztien ahalbide berdina, bere programaketa eta ekintzen eratzean sindikatutako guztien parte hartzdea eta bertako kideek Konfederakuntzaren bizitzaz eta hazkuntzaz ukan ditzaketeen iritzi desberdinen errespetoa.

E.L.A. langile klasearen batasuna lotzeko bidean sortzen diren oztopoak gaiditzen ahalengintzen da eta batasun hau sindikal praktika askean lrotu behar delakoan dago. Batasunerako prozesuan, E.L.A.-k beti gordeko die euskal langileen interesei zintzotasun osoa, berauen interesei atxikia baitago.

Gaur eguneko kapitalismoaren nazioz gaidiko estratejia gero eta nabarmenagoa denez gero, langile guztien arteko elkartasuna eta beren erakundearen arteko harreman hertsiaagoa langile klase ororen beharrezko premia bat da. E.L.A.-ren iritziz, nazioarteko elkartasun hau, nazio bakoitzeko sindikatoen elkarrenganako burujabetasun eta libertate onespenean oinarritu behar da, kidezko problematiketan datzalarik indartuz joanen den elkartasuna.

Euzko Langilleen Alkartasuna, beraz, sindikato bat da, euskal sindikato bat Euzkadiko langile guztientzat, klase sindikato bat, kanpoko inoren baldintzapenik gabea, demokratikoa bere egituretan, batasun zalea bere asmotan eta internazionalista bere praktikan.

2025



**ELA - EUSKAL LANGILEEN
ALKARTASUNAREN
PRINTZPIOEN
ADIERAZPENA**

NAZIO BATZORDEAREN
PROPOSAMENA,

ekainaren 3an Kongresuan
onartzeko aurkeztuko dena

Kongresuak onartutako adierazpen honek 1976koa eguneratzen du, eta ELAk hamarkada hauetan finkatu dituen eraldaketa ideologikoak, balioak, helburuak eta eredu sindikala biltzen ditu.

1 >>>

ELA (Euskal Langileen Alkartasuna) klase-sindikatu abertzalea da. Bere xedea da euskal langile-klasea batu, antolatu eta defendatzea, haren eskubide, helburu eta beharrak lehenetsiz.

ELAk aurre egiten dio pertsonak eta herriak esplotatzen dituen eta gizateriaren beharrezko funtsezkoenei entzungor egiten dien sistema ekonomiko eta sozial bati, kapitalismoari. Sistema horretan langileriak bizi ahal izateko bere lan-indarra saltzen du, dependentzia eta menpekotasuna eragiten duen ezberdintasunezko harreman batean kateatuta.

Kapitala guk ekoizten dugunaz jabetzen da eta lanaren banaketa sexuala betikotzen du; honek bizitzaren zaintza eta ugalketa lan gehienak emakumeei leporatzen dizkie. Gure jendarteak iraun dezan ezinbestekoak diren eginkizun hauek, sistematikoki ezkutatu eta gutxietsi egiten dira eta zor zaien balioa eta aitortza ukatzen zaie. Haatik, zaintza hauek gabe ezinezkoak lirateke hala soldatapeko lana nola kapitala elikatzen duten plusbalioak. Bestalde, sistema honek genero eta sexualitate adierazpen hegemonikoetatik aldentzen diren pertsonak diskriminatu eta zapaltzen ditu. Emakumeak eta ezarritako arauetan sartzen ez direnak zapaldu eta esplotatzen dituen sistema heteropatriarkal honetan, ELAk aldarrikatzen du langile-klasearen zinezko defentsarako behar-beharrezkoa dela sindikatu feminista izatea.

Logika kapitalistak natura beste baliabide bat balitz bezala hartzen du, neurririk gabe ustiatuz, ekosistemak suntsituz eta giza-bizitza arriskuan jarritz. Komunitateak eta herriak ere zapaltzen ditu, haiei ondasunak ebatsiz eta nortasuna ukatuz, kultura eta zibilizazio supremazismoa medio. Elite gutxi batzuek gero eta botere handiagoa biltzen dute, eta eredu antidemokratiko, patriarkal, ekoizda, kolonial eta arrazista honi eustearren ezberdintasuna eta injustizia oinarri dituen mundu mailako merkataritza inposatzen dute, baita gerrak piztu ere.

Kapitalismo globalak, aipatutako logikaren baitan, milioika lagun migratzera behartzen ditu bizitza hobe baten bila. ELAk dio herriek eskubidea dutela bizimodu egokia bermatuko duen garapen ekonomikoa izateko; biztanleak hauen berezko lurraldeetatik kanporatuko ez dituen garapena. Halaber, aldarrikatzen dugu migratzea oinarritzko giza-eskubide bat dela eta gaitzetsi egiten dugu eskubide horren jabe den edonor kriminalizatzen edo baztertzen duen sistema oro. Klase-sindikatuak izateak esan nahi du ere abegikorra izatea, langile-klasearen aniztasuna aitortzea, eta protagonismoa ematea migratzaileei erakundearen maila guztietan.

ELArentzat, bizitzarako funtsezkoak diren ondasunak eta pertsonak eta herriak menperatzeko baliabideak daitezkeen oro, ezin dira esku pribatuetan egon. Baliabide hauek kudeaketa kolektiboa eskatzen dute, benetako kontrol demokratikoaren menpe. Bestalde, ELAk errefusatu egiten ditu demokrazia liberalen markoan ezberdintasun sozialak iraunarazten dituzten mekanismo eta instituzioak. Horregatik, sindikatuaren hautua da jende guztiaren oinarritzko beharrianak osatuko dituen sozialismoa, gizateriaren garapen betea bultzako duena eta zinez demokratikoa, anitza, feminista, antirrazista eta ekologista izango dena. Borroka hauek guztiak zeharo lotuta daude, izan ere zapalkuntza eta diskriminazio moduak elkar gurutzatu eta elikatzen baitira; eta horrek ikuspuntu horiek guztiak bilduko dituzten erantzunak eskatzen ditu.

Deskribatutako dominazio-egiturez gainera, euskal herritarroei ukatu egiten digute herri moduan izateko eta erabakitze askatasuna. Menpekotasuna ezartzeko sortu diren kultura, hizkuntza eta egitura politiko-administratiboak inposatzen dizkigute. Espainiar eta frantses estatuek gure etorkizuna erabakitze oinarritzko eskubidea ukatzen digute. Hau dela eta, ELAk Errepublika izango den Euskal Herri burujabe baten alde egiten du, non gaur banatuta dauden lurraldeek bat egiteko aukera izango duten, herritarrek adierazitako borondate demokratikoa aintzat hartuz. ELAk Euskal Herri euskalduna du helburu, eta lanean dihardu herritarrak zein instituzioak euskalduntzeko, euskara gure herriko ohiko hizkuntza bihurtu arte. Ikusmolde honekin bat, euskara sindikatuko hizkuntza nagusia da.

ELAren konpromisoa ez da Euskal Herriko mugetan amaitzen. Sindikatuak herrien burujabetza aitortu eta sostengatzen du, baita autodeterminaziorako, defenditzeko eta edozein zapalkuntza motatik askatzeko duten eskubidea ere. ELAren iritziz, internazionalismoa funtsezko tresna da mundu mailako esplotazio eta ezberdintasun dinamiak aurre egiteko. Horregatik, gure tankerako idealen alde borrokan diharduten erakunde sindikal eta sozialekiko elkartasuna adierazi nahi dugu. Uste osoa dugu lankidetzaren indarrean eta geure justizia, berdintasun eta duintasun ikusmolde berdinak dituztenekin lan egiten dugu.

2 >>>

ELAk bere eskubide eta duintasunaren aldeko borrokan bat egiten duen euskal langileria guztia lotzen du, hau jatorriz, sinesmenez edo ideologiaz askotarikoa izan arren. Sindikatuak bere afiliazioaren parte-hartze aktiboa sustatzen du bere proposamenen definizioan. Erakundearen baitan iritzi ezberdinekiko errespetua oinarritzko printzipio bat da, eta honek bere izaera inklusibo eta demokratikoa areagotzen du.

ELA sindikatu guztiz independentea da. Independentzia honen helburua lan munduko eta gizarteko injustizien aurka borrokatze gauza izango dela bermatzea da. Autonomia hori ere badagokio bere ideologia, estrategia eta antolakuntza definitzerako orduan. Halaber, sindikatuak beste alderdi politiko, erakunde eta instituzio ororengandik independentea da. Eta independentzia hau benetakoa izan dadin ELAren eredu ekonomikoaren oinarria haren afiliatuen ekarpenak dira; hau beharrezkoa da kapitalaren, enpresen eta instituzio politikoen presioei eusteko.

Bere autonomiaren baitan, ELAk aliantzak eta lankidetzak gauzatzen ditu beste sindikatu, gizarte-mugimendu eta antzeko erakundeekin, Euskal Herrian nahiz nazioarteko mailan.

Harreman horien oinarri dira balio partekatuak eta justizia, berdintasun eta demokrazia handiagoa izango den mundu bat eraikitzeko borondatea.

ELA batez ere erakunde militante bat da. Militantzia honen oinarriak nortasun partekatua, jarrera etikoa eta ekintza kolektiboa dira. Militante izatea da sindikatuko kide izateko modurik berezkoena, eraldaketa sozialaren protagonista gisa.

ELAk indarkeriarik ezaren eta desobedientzia zibilaren aldeko apustua egiten du, bere balio eta helburuekin koherenteak diren borroka tresnak diren heinean. Hautua ez da soilik etikoa; errotik eraldatu nahi dugun sistema kapitalista honen berezko bortizkeria agerien uzteko bitarteko indartsu bat ere bada. Guk mobilizazio kolektiboa, erresistentzia eta bere klase-balioekiko leiala den mugimendu baten alde egiten dugu.

3 >>>

ELAk autonomia kolektiboa defendatzen du; hau jendarteek antolatzeke eta eragiten dieten gaiei buruz erabakiak hartzeko duten eskubidea da, kanpoko injerentziarik gabe, ez gobernuen, ezta erakunde pribatuen aldetik ere. Printzipio hau oinarritzat harturik, sindikatuak aldarrikatzen du erakunde sozial eta sindikalek eremu publikoan esku hartzeko duten eskubidea, batik bat herritar xumeei eragiten dieten politiketan. Sindikatuak langileriak egunero ematen dion zilegitasun politikoa du.

Demokrazia lehentasunezko borroka-frontea da ELArentzat. Langile klaseak bete-betean eutsi behar die sistema ekonomiko eta sozial kapitalistari hain deseroso zaizkion oinarritzko eskubideei. Horregatik, faxismoa eta beronen adierazpen guztiak gaitzesten ditugu, horien artean elite ekonomiko eta politikoen defentsa, gizartearen ikusmolde erreakzionario eta autoritarioak, baita bazterkeria eta beldurra areagotzen duten gorroto eta intolerantzia ere.

ELAk egia, justizia eta erreparazioa eskatzen du oinarritzko eskubideak urratzen diren kasu guztietarako. Sindikatuak jende guztiarentzako eskubide berdintasuna eta ekitatea sustatzen du, edozein dela ere bere generoa, jatorria, ezaugarri fisikoak, funtzionaltasuna, adina, identitate sexuala, erlijioa edo sinesmenak. Bazterkeria borrokatzea eta baztertuak diren pertsonentzako tratatu duina bermatzea lehentasuna da sindikatuarentzat.

ELAren iritziz lan munduko instituzio eta praktikarik berezkoena negoziazio kolektiboa da. Honen bidez aberastasunaren banaketa justuagoa bultzatzen du eta soldatapeko langileen baldintzak hobetzen ditu. Halaber, ELAk bizia babestu eta zaintzeko lanak aitortzen ditu, hauek sarri ez baitira aintzat hartzen, eta lan egiten du berdintasunez gara daitezen.

Jende guztiari zor zaio bizimodu duina gara dezan bitarteko eta baliabideak izateko eskubidea. Horregatik, ELArentzat estrategikoa da aberastasuna birbanatzeko benetako mekanismoen alde borrokatzea, baita oinarritzko eremuetan justizia eta ekitatea sustatzeko zerbitzu eta gizarte-babeseko sistemak bermatzea ere, hala nola etxebizitza, osasuna, hezkuntza, elikadura, ura, zaintza, energia, garraioa eta komunikazioa. Hori lortzeko sindikatuak lehenetsiko ditu ongizate-egitura publikoak eta kolektiboki kudeatutako beste alternatiba batzuk, betiere herri klaseen zerbitzura.

**Elkarrekin, sindikatua eginez, oraina
eraldatzeko eta etorkizunerako bideak
urratzeko gauza izango gara. Euskal
Herri burujabe, feminista, euskaldun,
sozialista, anitz eta solidarioaren alde lan
egitea helburua ez ezik, itxaropenerako
arrazoia eta konpromiso zein mobilizazio
kolektiborako etengabeko gonbitea ere
badugu.**

Gora ELA!